

**XEDAPENA, OSATEK, S.A.-KO ZUZENDARI GERENTEARENA, LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ IZENDATZEN DUENA LAGUNTZAILEA KATEGORIAN LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZATEKO HAUTAKETA-PROZESUKO EPAIMAHAIA.**

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2022ko azaroaren 28ko xedapen baten bidez, plazak lanbide-kategorien arabera banatzea onartu zen, eta lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak arautu ziren, Osatek, S.A.-n aldi baterako enplegua lehiaketa-oposizio bidez egonkortzeko deialdi berezi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2022ko azaroaren 30eko xedapen baten bidez, oposizio-lehiaketa bidez lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onartu ziren, Osatek, S.A.-n destinoa duten laguntzailearen kategorian.

Oinarri orokorrak onartzen dituen xedapenaren 12. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, OSATEKeko zuzendari gerenteak hautapropa horiek kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horregatik, ematen zaizkidan ahalmenez baliatuz, hau

**XEDATZEN DUT**

**Bat.-** Osatek, S.A.-n destinoa duen laguntzailearen kategorian lan-kontratuko langile finko izateko hautaketa-prozesuko epaimahaia izendatzea eta eratzea, lehiaketa-oposizio bidez.

**Bi.- Epaimahaia**

Honako pertsona hauek osatuko dute epaimahaia:

Presidentea: José Chouza Dopazo.  
Kideak: Rodolfo Fernández Ibaibarriaga.  
Eugenio Ligüeri Álvarez.  
Florencia Acevedo Amado.  
Idazkaria: Maider Blanco Zarraga.

**Hiru.- Gauzatzea.**

Sinatzen den egunean jarriko da indarrean xedapen hau. Jakinaraz bekie interesdunei.

**Lau.- Argitalpena**

Xedapen hau OSATEKen webgunean ([www.osakidetza.euskadi.eus/servicios-osatek/-/oferta-de-empleo-2022/](http://www.osakidetza.euskadi.eus/servicios-osatek/-/oferta-de-empleo-2022/)) eta Campo&Ochandiano enpresaren webgunean ([www.campo-ochandiano.com](http://www.campo-ochandiano.com)) argitaratuko da.